Sektoreari buruzko informazioa

# Sektoreari buruzko informazioa

Jarduera ekonomikoa, aztertzeko asmoz, banatu deneko 26 lanbide-arloetako bat da. 2018an, Euskal Autonomi Erkidegorako zenbatetsitako **Barne Produktu Gordina** 76.808.704 mila €-koa da, eta Instalatze eta Mantentze Lanak arloarekin zerikusia duten jardueren zenbatetsitako BPGa 2.899.540 mila €-koa, hau da, guztizkoaren % 3,78.

Lanbide-arlo honetan, jarraian adierazten diren **(JESN) Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionaleko** epigrafeetan erregistratutako enpresak edo erakundeak aztertzen dira:

| JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN NAZIONALA (JESN) | |
|---|---|
| 3311 | Produktu metalikoen konponketa |
| 3312 | Makineriaren konponketa |
| 3320 | Makinen eta industriako ekipoen instalazioa |
| 3530 | Lurrun eta aire girotuaren hornidura |
| 4322 | Iturgintza, berogailu sistemen instalazioak eta aire girotua |
| 4329 | Beste instalazio batzuk eraikuntza obretan |
| 4399 | Beste inon sailkatu gabeko eraikuntza espezializatuko beste jarduera batzuk |
| 7112 | Ingeniaritzako zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin uztartutako beste jarduera batzuk |

## Sektoreari buruzko informazioa

Hona hemen epigrafe horietako bakoitzeko **establezimendu kopurua** EAEn :

| JARDUERAK (JESN) | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 33 | Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 793 |
| 35<br>3530 | Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura<br>Lurrun eta aire girotuaren hornidura | 10 |
| 43<br>4322<br>4329<br>4399 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak<br>Iturgintza, berogailu sistemen instalazioak eta aire girotua<br>Beste instalazio batzuk eraikuntza obretan<br>Beste inon sailkatu gabeko eraikuntza espezializatuko beste jarduera batzuk | 4.784 |
| 71<br>7112 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak<br>Ingeniaritzako zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin uztartutako beste jarduera batzuk | 2.357 |
| | **GUZTIRA** | **7.944** |

Iturria: EUSTAT 2018

Hortaz, jarduera-adarren osotasunean dauden 174.771 enpresa-establezimenduetatik, guztira 7.944 Instalatze eta Mantentze Lanak arloarekin lotutako enpresa-jardueretan aritzen dira, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduen % 4,5.

ie ivac eei

# INSTALATZE ETA MANTENTZE LANAK

LANBIDE KUALIFIKAZIOAK

Sektoreari buruzko informazioa



## Sektoreari buruzko informazioa

**Establezimenduen tamainari dagokionez**, ikusten da 2018an % 92,7k 10 langile baino gutxiago dituela, % 6,4k 10 eta 50 langile artean eta, azkenik, % 0,9k soilik ditu 50 langile baino gehiago




Gehienek pertsona fisikoaren eta sozietate mugatuaren **forma juridikoa** hartzen dute: % 53,3 eta 36,3, hurrenez hurren. Beste sozietate eta elkarte batzuek % 6,5 biltzen dute (horien artean, sozietate kooperatiboek). % 3,9k sozietate anonimoen forma hartzen du



## Sektoreari buruzko informazioa

**Giza baliabideei dagokienez**, 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, jarduera honek % 3,4 inguru hartzen du guztizko enpleguaren gainean; eta, 2015-2018 aldian, biztanleria okupatuaren urte arteko batez besteko % 2,6ko igoera antzematen da.

Ondorengo taulan, **adinaren eta sexuaren arabera** 2018an kontratuak nola banatu diren ikusten da.

| | JESN 33 | | JESN 35 | | JESN 43 | | JESN 71 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ADIN TALDEAK** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** | **Gizona** | **Emakumea** |
| **< 25 urte** | 335 | 51 | 0 | 0 | 506 | 41 | 202 | 74 |
| **25-44 urte** | 1.827 | 330 | 3 | 3 | 2.997 | 198 | 830 | 553 |
| **> 44 urte** | 1.112 | 229 | 1 | 0 | 2.098 | 79 | 293 | 132 |
| **GUZTIRA** | **3.274** | **610** | **4** | **3** | **5.601** | **318** | **1.325** | **759** |

Iturria: Geuk prestatua, INEMek emandako datuetan oinarrituta

# Sektoreari buruzko informazioa

Azkenik, **lurralde-banaketari dagokionez**:

| ÁLAVA-ARABA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 33 | Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 90 |
| 35 | Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 1 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 604 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak | 354 |
| | **GUZTIRA** | **1.049** |

| GIPUZKOA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 33 | Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 326 |
| 35 | Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 3 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 1.319 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak | 745 |
| | **GUZTIRA** | **2.393** |

| BIZKAIA | | ESTABLEZIMENDU KOP. |
|---|---|---|
| 33 | Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 377 |
| 35 | Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura | 6 |
| 43 | Eraikuntza espezializatuko jarduerak | 2.861 |
| 71 | Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak | 1.258 |
| | **GUZTIRA** | **4.502** |

Geuk prestatua, EUSTATen datuetan oinarrituta

Sektoreari
buruzko
informazioa

# Sektoreari buruzko informazioa

| | |
|---|---|
| ● | BIZKAIA |
| ● | GIPUZKOA |
| ● | ÁLAVA-ARABA |

